

EMAKUMEAK KALEETAN

Ipar Euskal Herriko lehen emazte bertsolaria ezagutu eta karrikaratu

Ipar Euskal Herriko Xilaba bertsolaritza txapelketa emakumeen parte-hartze ugariarekin jokatzeko ari den honetan, momentu egokia da Iparraldeko hiru lurraldeetan ezagutzen den lehen emakume bertsolariaren ibilbideari begiratzeko. Mari-Luisa Erdocio Etcheverry deitzen zen, eta laster, bere omenez, jaioterri izan zuen Azkaineko erdialdean baratze bati bere izena emanen diote.

Mari-Luisa 1846an jaio zen, 1925ean zendu zen Donibane Lohizunen, eta ohiz kanpoko pertsona izan zen. Garaiko hainbat arau moral betetzen ez bazituen ere, ez zuen lotsarik izan taula gainean bertso-tan aritzeko, eta bere aparteko dohaina zela-eta, irabazteko ere ez. Prentsari dokumentatua izan denaren arabera, Sarako Lore Jokoetan hiru aldiz saritua izan zen, 1869an, 1875ean eta 1884an. Baina kazetei begiratuta, urtero horren berri ematen ez zela ikusirik, beste urteetan ere sariak jaso izana posible da.


Aparteko beste sari bat ere izan zuen bere parte-hartzeak, beste emakume bertsolariei ireki zien bidea, bere ondotik bat baino gehiago ausartu baitzen garaian balentria hutsa zena egitera. Berak parte hartu eta bi urte beranduago, bost parte-hartzaileetatik hiru emazteak izan ziren.

Informazio hori guztia bilatzeko, azkaindar talde bat mobilizatu egin da. Jendearekin mintzatzen eta artxiboetan begiratzen aritu dira. Dinamika horretan parte hartu duten herritarren taldean daude Marielen Deliarte eta Herriko Etxeko Kultura eta Euskara Batzordeko Murielle Leizagoyen hautetsia, eta egun dakitena

 **BERTSOLARITZA /** Idoia Eraso

Emakumeak Ipar Euskal Herriko karriken izenetan agerrarazteko xedearekin, Bask'elles elkarte herrietako eragileekin harremanetan da, toki bakoitzeko emazte apartak atzemateko. Azkainen, bide horretan, Ipar Euskal Herrian ezagutzen den lehen emakume bertsolaria aurkitu dute: Mari-Luisa Erdocio Etcheverry.

Familiak atzemandako argazki batean ageri da Mari-Luisa Erdocio Etcheverry bertsolari azkaindarra.
FAMILIA ARTXIBOA




argitzeko bidean norabide ezberdinak hartu behar izan dituztela eta sorpresa ederrak izan direla azaldu dute.

Bildutako datuekin panel bat osatu dute, eta Bask'elles elkarte kideek egitasmoaren oinarri gisara emakume ezberdinez egina zuten erakusketa ibiltariari gehitu diote. Erakusketa Lapurdiko herrian izan da gaur arte, eta Maulerako bidea hartuko du orain.

Bask'elles-eko Michaela Clapissonek nabarmendu du Azkainen muntatu den dinamika izan dela beraiek bilatzen dutenaren eredua, hautetsiak eta norbanakoak elkartu baitira herriko aparteko emakumearen ibilbidea ezagutu eta agerian emateko.

Elkarlan horri esker, ikerketa askoz sakonagoa izan da, eta azkaindarrek soilik egin zitzaizketen aurkikuntzak izan dira, esaterako, bertsolariaren argazkia. «Herrian ez genuen ezagutzen, salbu, batzuek bertsolaritzaren munduan aipa-



Egiazko aitzindari baten gisara, Mari-Luisa Erdocio Etcheverry ederki baliatu zen Lore Jokoek emazteei beren trebezia taula gainean agertzeko eskaini zieten paradaz

tzen zuten entzun zutela. Beñat Soule bertsozaleak egin zuen liburuan bere izena atera zuen erranez bertsolari bat izan zela XIX. mendean», azaldu du Euskal Museoa lan egi- ten duen Deliar- tek.

Hori abiapuntu hartuta, tal- dean parte hartu duen Maite Deliar- tek horren inguruan ikertzea proposatu zuen, eta elkarlanaren bidez informazio anitz lortzen joan zirela azaldu du Marielen ahizpak: «Lehen aldiz ateratzen da 1869ko arti- kulu batean: Julien Vinson ka- zetariak aipatzen du azkaindar gazte bat, eta badu deskriba- pen biziki polit bat, arras nes- ka bizia zela, eta jendeak mai- tatu zituela bere bertsoak».

Testu hori “Revue de Lin- guistique et de Philologie comparée” aldizkarian argita- ratu zuen Vinsonek, eta hi- tzordua «euskal poesia lehia- keta» gisara definitzen du.

Datu horiek guztiak biltzeko lau hilabeteko detektibe lana izan dela gaineratu du Deliar-

Aparteko ibilbidea, bertsolaritzaren atea beste emazteei irekiko ziena: bi urte geroago, 1871n, lehiaketan parte hartu zuten bost bertsolarietatik hiru emazteak izan ziren

tek: «Gutariko batzuk joan di- ra herriko artxiboetara, depar- tamentukoetara, eta poliki-po- liki xehetasunak atzeman ditugu». Amak 17 urte zituela- rik izan zuen, aitarik gabe; ho- rrez gain, aitatxi eta amatxia Hernanitik Lapurdiko herrira joan zirela deskubritu dute.

Bertsolariaren ohiz kanpoko bizitzaren zehaztapenak eman ditu museoko langileak: «Ha- mahiru haur ukan zituen, es- posatu zen Pierre Etcheverry marinelarekin; ezkon egunean jada hiru haur bazituen, eta orduan legitimatu zituzten. Marinela baitzen, pentsatzen dugu bera zela haurren aita. Saran aritu zelarik jada hiru haur zituen, eta irabazi zuen».

Baina bertsoei buruzko in- formaziorik ez da ailegatu

gaur arte, «bat-batekoa izanik airearekin joan dira». Kazeta- riak artikuluan kontatzen du berarengana joan zela bertsoe- tan esan zuenaz galdezka, bai- na jada ahantziak zituela.

Herrian zehar ere ikerketak egin dituztela azaldu du Leiza- goyenek: «Patinenia etxean bi- zi izan zen, eta hortik lortu du- gu familiak gurekin lan egitea, eta horiei esker lortu ditugu argazkiak. Hori momentu zo- ragarria izan zen, ez genuen uste hori izaten ahalko genu- nik. Familiakoek ez zekiten nor zen, baina joan ziren ikus- tera, eta atzeman zuten».

Beharbada oraindik gauza gehiago ere deskubrituko dira, panela egin eta gero bertso- lariaren familiako kideak atze- man baitzituzten erakusketa- ren aurkezpenean: «Estreina egunean etorri zitzaigun nor- bait erranez bere familiakoa zela; aditu zuela bere amatxia erraten bere amatxia bertso- laria zela, baina uste zuten ama- txi burutik joaten zela, eta

egin genuena ikusi zuelarik bi- ziki hunkitua izan zen».


Beste argazki bat ekarri zuen hark, Mari-Luisa Erdocio Et- cheverry bere senarrarekin, bere gurasoekin, eta bere be- deratzi haurrekin (beste lau- rak hil zirela suposatzen dute). «Hori da politena, sortzen du- zuna. Herriaren eta familiaren historia berreskuratzen da» erran du hautetsiak.

Eta bertsolariaren indarra azpimarratu du: «Garai horre- tan hori egitea zerbait bazen; upatzeko eszena batean nor- tasun handia izan behar zuen». Zentzu horretan, De- liar- tek hauxe gaineratu du: «Ez dakigu sobera nola zen denbora horretan, baina imaji- natzen ditugu emakumeak be- ti etxean haurrekin, eta hor- ikusten da ez zela beti horre- la».

Garai horretako emakume bertsolari- ekin buruz ezer gutxi jakin badaiteke ere Vinsonek lehenago Hondarribiko emaz- te bat izan zela aipatzen du.

Azkaineko plaza 1905ean, gaur egun herriaren erdialdeak antz handia dauka garai horretakoarekin. BAIONAKO EUSKAL MUSEOA





Au Pays Basque

Fêtes de la Tradition Basque - Concours d'irrinzinas et d'improvisations - Poètes et Bardes improvisateurs

Edition du Magasin : *Au Souvenir*, 14, rue Mazagran, Biarritz

«Orduan, hemen ez bezala, beste aldean emazteak bertso-tan aritzeko ohitura ba omen zen, ez kalean, baina bai etxee-tan», baieztatu du Leizagoye-nek.

Protagonistak Lore Jokoetan parte hartu zuen hiru aldietan saritua izan zen. Lehen aldian, irabazlea izan zen Piarres Ibar-rrartekin batera, “ezkontzeko eskaera” gaiari erantzunez. Bi-garrenean, lehen tokia eskura-tu zuen ere Joanes Etchetore-kin tokia partekatuz, “gazte mobilizatu baten azken agurra bere emaztegaiari” buruz kan-tatzeagatik. Hain apartekoa izan omen zen bere bertsoa, non Chambrun kondesak sari berezia eskaini zion. Azkenik,

1884an hirugarren tokia esku-ratu zuen.

HERRIZ HERRI

Erdocio Etcheverryren lorpe-nei buruzko informazioak aberastu duen erakusketak bi-dea egiten jarraituko du. Herri

«Julien Vinsonek idatzi zuen testuak erakusten digu nolakoa zen bertsolari gaztea: ernea, izpiritu zorrotzekoa, oholtzan beldurrik gabe ari zena garaiko genero estereotipoetatik at»

«Anitz haur hazi zituen ama familiakoak bizi ‘arrunta’ eraman zuen. Ahantzirik geratuko zen, ez bazuen Vinson hizkuntzalariak azkaindarraren talentua argitan eman»

Sarako Lore Jokoetan euskal kulturaren adierazpide ezberdinen inguruan egiten zen festa. Irrintzi eta bertsolaritza lehiaketan ari ziren taula gainean jendearen aitzinean.
BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

horietako batzuetan lana egi-na dute, eta besteetan ari dira, baina lortutakoekin oso kont-ent agertu da Bask’elles-eko Clapisson.

Herri zein hiri, kostaldeko zein barnealdeko tokietan, Ipar Euskal Herri osoan zehar ari di-ra dinamika hedatzen: Baiona, Donapaleu, Ziburu, Donibane Lohizune, Sara, Biarritz, Haz-parne, Donibane Garazi, Senpe-re, Ezpeleta, Kanbo, Urketa, Bi-riatu, Bardoze, Hendaia, Azkaine eta Maulen. Toki bat-zuetan egon da janeko, eta beste batzuetan heldu den hila-beteetan joanen da.

Erakusketa aurkezten den to-ki bakoitzean emakume bat atzematen entseatzen dira, eta

egindako lana balioesten dute izena ezagutarazteko. Batzue-tan hitzaldiak izaten dira, eta inguruko prentsa gonbidatzen dute, biztanleei beren herria-ren historiaren parte den per-sona hori ezagutarazteko.

Hurrengo urtean, proiektua-ren lehen urratsa amaitutzat emango dutelarik, bildutako emakume ohargarrien infor-mazioarekin eta argazkiekin, li-buruxka bat argitaratuko dute. Erakusketaren parte izatera heldu diren emakumeez gain, beste izen batzuk ere jaso di-tuzte, baina ezin izan dituzte denak landu, eta ez dute denek liburuxkan tokirik izango, bai-na etorkizunerako oinarri ba-liagarria izan daiteke.

SARAKO ELIZA BESTA

SARAKO BALDARN-APEZAK.

Ikuslie ZUBEROTAR eta UZTARIZTAR bi jannek egun dituzten eguintzak, emateko, herri puntako Eliza-Bestaren ohoretan, alphatzena daramakigun prezioak :

1^{er} **ESKALDUN MAHILA BAT**, *ohoretatuak, eta ezta lot urte, lapik lehiakiek saskin dituzten;*

2^{er} **UNTZA BAT URHE**, *ohoretatuak, eta ezta lot urte, lapik lehiakiek saskin dituzten;*

3^{er} **400 LIBERA**, *ohoretatuak, eta ezta lot urte, lapik lehiakiek saskin dituzten;*

4^{er} **UNTZA BAT URHE**, *ohoretatuak, eta ezta lot urte, lapik lehiakiek saskin dituzten;*

5^{er} **UNTZA BAT URHE**, *ohoretatuak, eta ezta lot urte, lapik lehiakiek saskin dituzten;*

6^{er} **HIRUR PREZIO**, *1^{er} 50 libera; 2^o 30 libera; 3^o 10 libera; Askasol, Sarak eta herriakiko lehiak guri esaniko bi herrietar;* eta 5^{er} 10 libera, *ohoretatuak, eta ezta lot urte, lapik lehiakiek saskin dituzten.*

JAKINARAZTEA DU,

1^{er} *Plato partidu jokatua izan da Saran, herriaren 1^{er} erdian, gaurko 10 orotatik, hantzen ondok;*

2^{er} *Bilarratsunak, ezarritak, gaurko 10 orotatik, jokatua izan da pikako partidu, eta ondok, herrietarrei gaur;*

3^{er} *Askasolaren, gaurko 10 orotatik, ematen dira bi eta niga hantzen prezioak;*

4^{er} *Bilur bat hantzen izanen da, parte jokatuz, herri, parte bideratzen; bilur herriek egiten dituzten partiduak ematen dira gaur;*

5^{er} *Orain bi eta niga herrietar hantzen izanen da herrietar herri herri bat auzidun jabetz herri.*

PILOTA PARTIDA HANDI HORI

JOKATUA IZANEN DA

Eskual Herrietan kauptzen diren Pilotari Famatuenez.

Jakintzen dire partidu hortan 400 libera, las ezarritak pilotari herriak; eka-hes lota, eta herrietar herriak. Auzidunak aldian herrietar eta pikako partiduak izanen dituzten partidu herrietar.

Eguina, Saran, herriko-erchean Agorritaren 30^o 1867.

Baldarn-Apeza, GOYETCHE.

«Mari-Luisaren bizitza eredugarria da gaurko emazte bertsolarientzat: familian eta lagunartekoan kantatzeko atsegina, lehiaketarekin uztartzea jakin izan zuen»

«Nahiz eta familia handituz joan, ez zion senarrak trabarik jarri, lehiaketan parte hartu baitzuen... Izpiritu irekia ote? Non ez zen Mari-Luisa baliatu marinela itsasoan zegoen aldiez»

Egitasmoaren xedea agerian emandako emakumeen izenak karriketara heltzea bada ere, denetan ez da oraingoz egingarria; halere, herriko etxeetan engaiamenduak lortzen ari dira baiezta du Bask'elleseko kideak. Toki guztietan ere ez da engaiamendu maila bera, anitzetan elkarteko kideei emaztearen izena ematen diete, eta gero beraiek izaten dira ikerketa lana eramaten dutenak.

Eskolekin ere ari dira elkarlanean, irakasle eta ikasleekin. Bi garren Hezkuntzako 17 zentrorekin garatu dute proiektua, eta aldiro biografia bat ematen diete horri buruz azterketa egin dezaten. Erakusketa bisitatza ere joaten dira eskoletako haurrak, beren herriaren historia hobeki ezagutzeko xedez.

Elkarteko kideak, beraien aldetik, topografiari loturiko historia zehatz bati ere lotu zaiz-

kio. Biarritzeko La Negresse auzoari izena eman zion emakumea existitu ote zen jakiteko, eta horrela izan bazen nor izan zen argitzeko, artxiboetara jotzen ari dira. Azkenaldian auzo horren izena zeresan handia ematen ari da, «negresse» hitzak emakume beltzak definitzeko daukan mespretxuzko kutsuarengatik. Hori dela-eta, eztabaida publikoa dago momentu honetan, izena aldatu beharko litzatekeen edo ez erabakitzeko.

Clapissonek argi utzi du beraiek eztabaida horretan ez direla sartzen: «Gauza asko esan dira, eta esaten ari dira, gu ez gara polemika horretan sartzen, emakumea ezagutu nahi dugu, besterik ez. Badirudi existitu egin zela, eta garai bateko jendearen pentsaeran eragina izan zuela, horregatik jakin nahi dugu nor zen».

Anton Abadiak sortu zituen lehen Lore Jokoak Urriñan, eta Saran ere ospatu ziren beranduago. ANTON ABADIA FONDOA

Bask'elles elkarteak egindako erakusketa herriz herriz dabil. Azkainen izan da orain arte, eta Maulera joanen da ondoren. Bob EDMÉ

